



Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

Amasa-Villabonako Udalaren izenean, bizi dugun osasun egoera larria kontuan izanik, lehen osasun arreta publikoak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu eta zentzu horretan lehen arretak dituen arazoei aurre egitea eta zerbitzua indartzearen beharra aldarrikatzen dugu. Gure ustez, osasungintza sistema indartsua guztiz beharrezkoa baita pandemiari aurre egiten jarraitzeko.

Ondorioz, honako eskaerak helarazi nahi genizkizueke:

- Herritarrek test azkarrak astean behin dohainik egiteko aukera ezartzea.
- Aztarnari edo rastreatzaile kopurua gehitzea, Covid-19aren kutsadura ematerakoan, honen trazabilitatea ahal bezain arinen egin ahal izateko.
- Laborategietako zerbitzuak indartzea, herritarrek egiten dituzten frogen emaitzak ahalik eta azkarren eskura izateko.

Egin dizkizuegun eskaerak kontuan hartuko dituzuelakoan...

Agur bero bat

Amasa-Villabona, 2021 / 12 / 20

ALKATEAK,

Izp.: Beatriz Unzue Esnaola

